



HEZKUNTZA SAILAK HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZARAKO ETA DBHrako ONARPEN PROZEDURA IREKI DU BERRIRO

- [Ikasleak Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan onartzeko prozesuari](#) berriro ekingo zaio, data berriak argitaratuta
- Egin beharreko izapideak bide telematikoz egingo dira

Gobernu Kontseiluak gaur eguerdian erabaki du Hezkuntza Sailari lotutako administrazio-prozedura batzuk berriro irekitzea, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua onartu ondoren bertan behera gelditu baitziren.

Errege Dekretu horrek, besteak beste, sektore publikoko erakundeetan prozedurak izapidetzeko epeak etetea ezartzen zuen, eta epe horien zenbaketa geroago hasiko zela adierazten zuen.

Hala ere, aurrerago, beste Errege Dekretu batek honako hau adierazten zuen: "Aipaturiko Errege Dekretu horrek edo, hala badagokio, haren luzapenek indarra galtzen duten unean, sektore publikoko erakundeek erabaki ahal izango dute, arrazoituta, interes orokorra babesteko edo zerbitzuen oinarritzko funtzionamendurako ezinbestekoak diren administrazio-prozedurekin jarraitzea".

Onarpen eta matrikula prozedura

Arau hori aintzat hartuta, gaur goizean Gobernu Kontseiluak baimena eman du Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan ikasleak onartzeko prozesuarekin jarraitzeko.

Ondorioz, eskabideak aurkezteko egutegi komuna eta onarpen-epeak honela aldatzea proposatzen da (**gorriz ageri dira data berriak**):

- a) Eskabideak eta egiaztagirak entregatzea: urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra.
- b) Eskatzaileen zerrenda argitaratzea: otsailaren 25a.
- c) Behin-behineko zerrenden argitalpena: martxoaren 17a.
- d) Behin-behineko zerrenden erreklamazioak: martxoaren 25era arte → **epe berria: maiatzaren 6ra arte.**
- e) Eskieran atzera egitea: martxoaren 25era arte → **epe berria: maiatzaren 6ra arte.**
- f) Behin betiko zerrenden argitalpena: martxoak 31 → **epe berria: maiatzaren 12a.**
- g) lurralde-ordezkariek esleitutako plazen zerrendak argitaratzea: apirilak 21 → **epe berria: aiazaren 15a.**
- h) Behin betiko zerrendeiri jarritako gora jotzeko errekurtsioak: apirilaren 30era arte → **epe berria: kainaren 12ra arte.**
- i) Ordezkariek esleitutako lanpostuei uko egitea: maiatzaren 5era arte → **epe berria: maiatzaren 19ra arte.**



- j) Estadística datuak grabatzea: apirilaren 20tik 27ra → **epe berria: maiatzaren 20tik 27ra**
- k) Itxaron zerrendaren indarraldia: irailaren 18ra arte

Egin beharreko izapideak bide telematikoz egingo dira.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko apirilaren 29an